

ZUBEROAKO MASKARADA

# Tradizioak emazteei esker eutsi dio

Aldizkari honen azalean ageri den datan egingo da aurtengo azken maskarada, Santa Grazin (Zuberoa). Duela urte batzuk, mutilik ezak neskatilak eraman zituen plazara; eta emakumeengatik ez balitz dantzarenak egingo zukeen Zuberoan, zenbaitzuren ustez.

Azken hamarkadan, dirudienez, mutilak itzultzen ari dira dantza eskoletara, baina oraindik nesken esku dago tradizioari eusteko arduraren zati handi bat. Luzaz beraien parte hartzea debekatu duen tradizio bera.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñaki Zugasti/Dantzan.com



**2006AN, ZUBEROAKO** Aitzindariak elkarteak *Aitzina Pika* ikusgarria aurkeztu zuen Maulen, eta ondoren Euskal Herri osoan zabaldu. Zuberoako dantza eta kantuan oinarritutako sorkuntza zen, eta herrialde osoko hainbat herritako gazteek hartu zuten parte bertan. “Neskatilek salbatu die dantza Xiberoan”, zuten leloetako bat.

“Duela hamabost bat urte, memento batez, ez zen haboro mutikorik dantza eskoletan ez eta dantza taldeetan”, oroitzen

**laz, bi emakumezko izan ziren xorrotzak Mauleko maskaradan. Beste behin baino ez da hala gertatu: 1992an. Urte hartako maskarada Eskiulak antolatu zuen, eta parte hartzaile guztiak emakumeak izan ziren.**

du Patrick Queheille “Kanpo”-k, *Aitzina Pika*-ko zuzendariak. Garai hartan, neskek bete zuten mutilek utzitako zuloa eta, “Kanpo”-ren zein beste askoren aburuz, zuberotar dantza salbatu. Ez maskarada bakarrik, baita pastoralak eta sorkuntza berriak ere.

Luzaroan zuberotar emakumeek debekatu-ta izan zuten plazan aritzea. Duela 30 urte inguru gauzak aldatzen hasiak ziren, astiro bada ere: baziren emakumezko dantzariak



*Aitzina Pika* ikuskizunak Bigarren Mundu Gerraren aurreko maskaradak ekarri zituen gogora, ezkerreko argazkian ikus daitekeenez. Garai hartan bibotedun kantiniersak ere ikus zitezkeen. Eskuinean, Mauleko aitzindariak iazko maskaradan.



Zuberoan, baina gutxi. Hamabost baino gehiago ez, Queheilleren esanetan. Garai hartan, 1979an, eman zen Etxahun Iruriren *Ximena* pastorala eta jokalaria guztiak emazteak izan ziren. Baina duela hogeitaz urtera arte ez zuten emakumeek hartu gaur duten protagonismoa. Halaber, hartu ere. Mutilik ez zen, kultura ahantzia baitzuten beste eginkizunetan aritzeko, kirolean batez ere.

“Nire ustez, emazteak berdinean sartuko ziren, mutil faltarik izan ez balitz ere”, dio Queheillek. Azken batean, emakumeek lekua aurkitu dute bestelako arlo batzuetan, eta dantza ez da salbuespena. Azken hamar urteotan, mutilak hasi dira berriaz dantzan, baina neskek gehiago dira oraindik. Eta gizonek utzitako zuloa bete ez ezik, ekarpen handia egin diote zuberotar kulturari. Esaterako, dantza egiteko teknika garatu dute. Zuberoako dantzek, gizonek eta gizonentzat sortuak izaki, indar handia eskatzen dute zenbait jauzi eta urrats egiteko; neskek, horren faltan, teknika hobetuz bide berriak zabaldu dituzte. Eta bikain urratu dute bide horiek. Gaur egun, herrialdeko dantza irakasleen erdia, gutxi gorabehera, emakumeak dira.

### Zer iritzi dute zuberotarrek?

1992an, Eskiulako herriak maskarada berezia antolatu zuen: parte hartzaile guztiak emakumezkoak ziren. Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoak aztertu egin zuen zer nolako harrera izan zuen saio hark Zuberoan. Hasieran askok ezin izan zuten irentsi, azkenerako onartu egin zuten gehienek.

Baina eztabaida nagusia ez zen neskek dantza egin zezaketen ala ez—ordurako ohikoa baitzen hori—, betidanik mutilek egindako rolak joka ote zitzaizkien baizik. Duela urte batzuk, esaterako, nekez ikus zitezkeen zamaltzain neskarik, eta oraindik ere, ahal dela mutil bati ematen zaio zeregin hori. Adierazgarriagoa da beste pertsonaia batzuen adibidea. Esaterako, 92an izan ezik ez da emakumezko Pitxu edo Kabanarik izan, eta oso gutxitan emakumezko buhamerik. Xorrotzak ere, eskiulatarrak salbu, beti gizonak izan dira iaz arte, eta gauza bera esan genezake musikariez. Orain arte sekula ez da izan mutil faltarik pertsonaia horiek jokatzen, beraz mutilek jokatu dituzte. Genero-bereizketa lerro batek indarrean segitzen du maskaradan, Oier Araolaza dantzan.com webguneko arduradunak 2005ean zioenaz. ■

**URDAZUBIko lezeak**  
 Irundik 40 minututara  
 Dantxarinetatik 3 km-tara

Argi eta soinuak  
 gidatutako bisitak

Tel.: 00 34 948 59 92 41

Errota

Urte guztian irekia

**AQUARIUM**

Karlos Blanco de Irujo Plaza, 1  
 20003 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)  
 Txl: 943 44 00 99  
 e-posta: [aquarium@apuzharren.com](mailto:aquarium@apuzharren.com) \* web-iritzi: [www.aquarium.com](http://www.aquarium.com)

AQUARIUM